Oharrak: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999 urtekoak dira eta 15 urtetik gorako biztanleriari dagozkie.

## Lantokira joateko erabilitako garraiobidea %tan, 2001



• Baiona-Donostia euro-hiriko biztanle okupatuen %14,8 soilik joaten dira lantokira oinez, eta %3,7ak bi gurpiletako ibilgailua erabiltzen du. Aldiz, erdiak baino gehiagok auto partikularra erabiltzen dute lanera joateko; garraiobide publikoa soilik %12,2ak erabiltzen dute.

• Gipuzkoan gehiago dira oinez (%20,8) edo bi erruberatoko ibilgailua (%2,7) erabiliz lanera joaten direnak Lapurdin baino (soilik %5,8 joaten da oinez Lapurdin eta %3,3 bi gurpiletako ibilgailuan).

• Lapurdin hamar okupatuetatik ia 8k erabiltzen du auto partikularra lanera joateko; eta Gipuzkoan portzentaje hori %50,3ra jaisten da. Garraio publikoa, berriz, Lapurdiko langileen %2,8k baino ez du erabiltzen, eta Gipuzkoan ere soilik %11,9k.

Lanera oinez gehien doazen langileak Getaria, Zarautz, Lasarte-Oria eta Oriokoak dira. Garraiobide publikoan Pasaiaokoak, Errenteriakoak, Donostiakoak eta Lasarte-Oriakoak. Eta, azkenik, auto partikularrean joateko ohitura edo behar gehien dutenak Haltsu, Basusarri, Lehentze eta Milafranka inguruak dira, besteak beste.

## 41.- Lantokira joateko erabilitako garraiobidea %tan

## Baiona-Donostia, 2001

Eremua	Urtea	Okupa- tuak	Oinez (%)	Garraio- bide ba- karra (%)	2 gurpi- leko ibil- gailua (%)	Autoa (%)	Garraio- bide pu- blikoa (%)	Garraio- bide anitz (%)	Beste (%)
Baiona-Donostia	2001	250.364	14,8	71,0	3,7	55,1	12,2	3,0	11,2
Ahetze	1999	557	0,0	91,0	1,4	89,4	0,2	3,6	5,4
Aia	2001	765	7,7	48,9	2,0	44,6	2,4	1,0	42,4
Andoain	2001	5.943	17,8	69,1	1,0	54,5	13,6	1,2	11,9
Angelu	1999	13.862	2,9	89,5	3,4	83,6	2,5	5,2	2,3
Arbona	1999	643	8,9	82,9	1,2	77,1	4,5	2,8	5,4
Arrangoitze	1999	1.158	1,1	90,7	2,5	87,3	0,9	3,6	4,6
Astigarraga	2001	1.936	12,3	65,4	2,5	51,8	11,1	1,7	20,6
Azkaine	1999	1.231	3,1	88,5	3,6	83,8	1,1	3,6	4,8
Baiona	1999	14.060	10,4	79,3	4,2	69,1	6,0	6,7	3,7
Basusarri	1999	789	1,0	93,5	1,1	91,5	0,9	3,2	2,3
Biarritz/ Miarritze	1999	9.957	9,1	80,9	4,2	72,4	4,3	6,1	3,8
Bidarte	1999	1.864	2,6	87,1	2,5	82,6	2,0	5,6	4,7
Biriatu	1999	357	1,1	91,6	3,1	87,1	1,4	4,2	3,1
Bokale	1999	2.544	2,5	90,8	4,6	82,7	3,5	3,9	2,8
Donibane Lohizune	1999	4.409	13,2	75,9	3,8	70,5	1,6	6,2	4,7
Donostia	2001	76.728	17,9	66,7	5,4	41,5	19,8	2,6	12,7
Errearteria	2001	17.242	14,3	67,4	2,1	45,1	20,2	3,0	15,3
Getaria (Gipuzkoa)	2001	1.082	30,2	52,7	2,0	44,7	5,9	0,6	16,5
Getaria (Lapurdi)	1999	464	4,7	84,5	1,9	80,2	2,4	6,0	4,7
Haltsu	1999	213	2,8	94,4	0,9	92,0	1,4	1,4	1,4
Hendaia	1999	4.566	8,4	83,4	3,8	77,3	2,3	5,3	2,8
Hernani	2001	8.195	19,3	64,2	1,2	48,9	14,1	1,5	14,9
Hiriburu	1999	1.587	1,4	92,4	2,5	86,1	3,8	3,2	3,0
Hondarribia	2001	6.876	14,3	68,0	4,0	57,4	6,6	1,7	16,0
Irun	2001	24.925	19,9	64,6	2,2	51,9	10,5	1,4	14,1
Jatsu (Lapurdi)	1999	360	1,4	89,7	1,4	87,8	0,6	3,3	5,6
Larresoro	1999	593	1,5	89,9	1,5	87,7	0,7	3,0	5,6
Lasarte-Oria	2001	7.784	23,4	61,2	1,1	45,0	15,1	2,6	12,7
Lehuntze	1999	818	0,9	93,8	2,0	89,9	2,0	3,5	1,8

Eremua	Urtea	Okupa- tuak	Oinez (%)	Garraio- bide ba- karra (%)	2 gurpi- leko ibil- gailua (%)	Autoa (%)	Garraio- bide pu- blikoa (%)	Garraio- bide anitz (%)	Beste (%)
Lezo	2001	2.758	12,4	68,8	2,2	54,1	12,6	2,2	16,6
Milafrauga	1999	787	1,0	92,8	2,4	89,8	0,5	1,7	4,6
Oiartzun	2001	4.386	10,9	71,1	2,2	62,3	6,5	1,3	16,7
Orio	2001	2.012	22,3	58,5	1,4	49,9	7,2	1,0	18,1
Pasaia	2001	6.383	16,7	66,8	2,4	44,2	20,2	1,8	14,7
Sara	1999	861	4,5	76,3	1,7	74,1	0,5	5,1	14,1
Senpere	1999	1.688	2,3	87,3	3,0	83,6	0,7	2,1	8,4
Urnieta	2001	2.532	11,2	68,0	1,2	53,7	13,1	1,8	19,0
Urruña	1999	2.909	2,3	90,2	3,2	85,3	1,7	3,3	4,2
Usurbil	2001	2.501	14,8	69,1	2,2	57,9	9,0	1,7	14,4
Zarautz	2001	9.402	27,4	58,7	6,8	46,4	5,5	0,9	13,0
Ziburu	1999	2.197	6,8	85,3	4,5	79,0	1,8	4,8	3,1
Urruña	1999	2.909	2,3	90,2	3,2	85,3	1,7	3,3	4,2
Usurbil	2001	2.501	14,8	69,1	2,2	57,9	9,0	1,7	14,4
Zarautz	2001	9.402	27,4	58,7	6,8	46,4	5,5	0,9	13,0
Ziburu	1999	2.197	6,8	85,3	4,5	79,0	1,8	4,8	3,1
Zuraide	1999	440	0,9	89,5	2,0	87,3	0,2	1,6	8,0

Iturria: Biztanleria zentsuak (INE, INSEE)

Oharrak: Lapurdiko datuak 1999 urtekoak dira eta 15 urtetik gorako biztanleriari dagozkie.





### 3. Lan merkatua zentsuaren arabera: aldagai garrantzitsuenen laburpen taula

		Urtea	Euro-hiria	Lapurdi	Gipuzkoa	EH	Europa (27)
<b>Biztanleriaren ezaugarriak</b>							
1	Biztanleria guztira	2006	624.719	231.178	691.895	3.014.018	492.852.359
2	Dentsitatea	2006	690,5	270,2	349,4	143,9	114,3
3	Zahartze Indizea	1999/2001	128,1	123,9	129,3	130,0	90,8
4	Jaiotza Tasa	2005	9,6	9,9	9,8	9,5	10,5
5	Ugalkortasun Indize Sintetikoa	2005	38,6	42,7	38,6	37,3	42,9
6	15 urtetik gorakoek eskolatze tasa	1999/2001	9,5	9,0	9,1	9,1	
7	15-19 eskolatze tasa	1999/2001	77,0	91,3	69,0	69,7	
8	20-24 eskolatze tasa	1999/2001	40,6	36,4	39,7	39,4	
9	15 urtetik gorakoek artean 2M. II ikasketa dituztenen %	1999/2001	28,3	38,1	23,5	23,3	
10	15 urtetik gorakoek artean 3M. ikasketa dituztenen %	1999/2001	16,1	16,2	14,2	15,0	

		Urtea	Euro-hiria	Lapurdi	Gipuzkoa	EH	Europa (27)
<b>Lan Merkata (Zentsua)</b>							
11	Biztanleria 16-64 urte	1999/2001	402.497	138.169	462.833	1.975.943	321.334.000
12	Biztanleria aktiboa (16-64 urte)	1999/2001	281.587	95.385	323.181	1.355.664	217.959.000
13	Jarduera tasa, 16-64 urte(JT)	1999/2001	70,0	69,0	69,8	68,6	67,8
14	JT 16-29	1999/2001	59,3	52,0	62,4	61,2	59,0
15	JT 30-44	1999/2001	87,0	88,5	85,9	85,0	84,3
16	JT 45-64	1999/2001	62,0	63,8	60,3	58,5	59,9
17	Biztanleria enplegatua (16-64 urte)	1999/2001	247.919	81.743	292.060	1.201.118	193.908.000
18	Enplegu tasa, 16-64 urte (ET)	1999/2001	61,6	59,2	63,1	60,8	60,3
19	ET 16-29	1999/2001	48,8	39,3	53,5	50,4	49,0
20	ET 30-44	1999/2001	77,7	77,3	78,5	76,4	76,5
21	ET 45-64	1999/2001	56,2	57,2	56,0	53,8	54,8
22	Biztanleria langabetua	1999/2001	33.442	13.382	31.121	154.242	23.952.000
23	Langabezia tasa (LT)	1999/2001	11,9	14,0	9,6	11,4	11,0
24	LT 16-29	1999/2001	17,4	23,2	14,3	17,5	16,7
25	LT 30-44	1999/2001	10,7	12,7	8,6	10,1	9,3
26	LT 45-64	1999/2001	9,4	10,3	7,2	8,0	8,6
27	Soldatapekoak ez diren langileak (%)	1999/2001	18,2	15,7	20,6	18,4	
28	Langileria finkoa (%)	1999/2001	61,9	71,2	56,9	59,7	
29	Langileria ez finkoa (%)	1999/2001	19,9	13,1	22,5	22,0	12,4
30	Lehen sektorean okupatuak (%)	1999/2001	1,8	2,4	1,8	3,0	6,2
31	Industrian okupatuak (%)	1999/2001	27,6	20,9	39,8	35,4	29,8
32	Zerbitzuetan okupatuak (%)	1999/2001	70,6	76,7	58,4	61,6	64,0
33	Lantokia: Bizi den udalerrian (%)	1999/2001	49,9	40,0	51,1	49,4	
34	Lantokia: Departamentu edo komunitate berdinean (%)	1999/2001	45,8	51,6	46,7	47,4	
35	Lantokia: Beste dep. edo komunitate batetan (%)	1999/2001	4,4	8,3	2,2	3,3	
36	Lantokira: Oinez (%)	1999/2001	14,8	5,8	20,8	18,5	
37	Lantokira: Garraio bide bakanak (%)	1999/2001	71,0	84,9	64,9	65,7	
38	Lantokira: Bi gurpileko ibilgailua (%)	1999/2001	3,7	3,3	2,7	1,8	
39	Lantokira: Autoa (%)	1999/2001	55,1	78,7	50,3	50,8	

		Urtea	Euro-hiria	Lapurdi	Gipuzkoa	EH	Europa (27)
<b>Lan Merkaturia (Zentsua)</b>							
40	Lantokira: Garraiobide publikoa (%)	1999/2001	12,2	2,8	11,9	13,1	
41	Lantokira: Garraiobide anitz (%)	1999/2001	3,0	4,8	1,6	2,6	
42	Lantokira: Beste (%)	1999/2001	11,2	4,5	12,7	13,2	
<b>Emakumezkoak</b>							
1	Biztanleria guztira	1999/2001	331.978	115.481	343.275	1.481.973	247.776.537
3	Zahartze Indizea	1999/2001	156,4	152,9	152,5	152,3	107,0
6	15 urtetik gorako en eskolatzeko tasa	1999/2001	9,6	8,2	9,8	9,6	
13	Jarduera tasa (JT)	1999/2001	61,0	63,8	58,0	57,1	59,7
14	AT 16-29	1999/2001	56,2	49,7	58,1	57,1	54,2
18	Enplegu tasa (ET)	1999/2001	51,8	52,9	50,3	48,1	52,7
19	ET 16-29	1999/2001	44,9	36,3	47,9	45,1	44,8
23	Langabezia tasa (LT)	1999/2001	15,2	17,1	13,4	15,7	11,8
24	LT 16-29	1999/2001	20,0	26,9	17,5	20,9	17,3
<b>Gizonezkoak</b>							
1	Biztanleria guztira	1999/2001	287.129	103.548	330.288	1.421.290	35.181.452
3	Zahartze Indizea	1999/2001	101,6	96,6	107,5	108,9	74,5
6	15 urtetik gorako en eskolatzeko tasa	1999/2001	9,3	9,9	8,4	8,5	
13	Jarduera tasa (JT)	1999/2001	79,0	74,4	81,3	79,9	76,0
14	JT 16-29	1999/2001	62,2	54,2	66,5	65,1	63,6
18	Enplegu tasa (ET)	1999/2001	71,6	65,6	75,6	73,2	68,1
19	ET 16-29	1999/2001	52,4	42,0	58,7	55,4	53,1
23	Langabezia tasa (LT)	1999/2001	9,3	11,3	7,0	8,3	10,3
24	LT 16-29	1999/2001	15,1	20,0	11,7	14,8	16,2

Iturria: Biztanleria zentsuak eta erresgistroak (INE, INSEE, EUROSTAT).

**Oharra:** Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian azken zentsua 2001. urtean egin zen eta Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan 1999. urtean. Urtea zutabeen 1999/2001 bezala adierazi dugu. Europako datuak 2001 urtekoak dira. Ohar zehatzak ezagutzeko joan taula bakoitzera. Malta eta Belgikako datuak lan merkatuko datuetatik atera ditugu, ez zentsuetatik.



## 4. Ondorioak

### Demografiari dagokionez...

Euro hiria osatzen duten 42 udalerriak Euskal Herriko bi herrialdeetan banatuak daude: Gipuzkoan, 17 udalerrri (euro-hiriko biztanleen %68,4) eta Lapurdin, 25 udalerrri (%31,6). Euro-hiriko biztanleriaren erdia baino gehiago, %58,2 bost udalerrri hauetan biltzen da: Donostia, Irun, Baiona, Angelu eta Errenteria.

Baiona-Donostia euro-hirian Euskal Herriko biztanleriaren %20,7 biltzen da; %14,2 Gipuzkoan eta %6,6 Lapurdin.

Euro-hiriko ezaugarri demografiko nagusienak hauek dira:

- **Dentsitate handiko ingurunea:** 690,5 pertsona bizi da km<sup>2</sup> bakoitzeko. Kopurua hau Euskal Herrikoa (143,9), Gipuzkoakoa (349,4) eta Lapurdikoa (270,2) baino handiagoa da. Eta Europako Batasuneko bataz bestekoa (114,3) baino dezente handiagoa.

- **Biztanleriaren zahartze prozesu nabarmena jasan duen ingurunea:** Baiona-Donostia euro-hiriko zahartze indizea 128koa da, hots, 128 pertsona heldu (60 urtetik gora) bizi da 100 gazte (20 urtetik behera) bakoitzeko. Indize hau Euskal Herriko bataz besteko indizearen antzekoa da, baina Europako Batasuneko estatuetako bataz bestekoa (90,8) baino dezente handiagoa da. Ez dago Batasunean estatu bakar bat ere Euskal Herriko eta Baiona-Donostiako indizeak gaingitzen dituen.

- **Jaiotza tasa txikiak ahalbidetu dute zahartzte prozesu hori:** 2005. urtean mila biztanleko 9,6 haur jaio ziren Baiona-Donostia euro-hirian. Euskal Herriko, eta baita Gipuzkoa eta Lapurdiko, batz bestekoaren antzeko kopurua, baina Europako Batasuneko batz bestekoa (10,5) baino puntu bat txikiagoa. Soilik Batasuneko 8 estatuk dute Baiona-Donostiak eta Euskal Herriak baino tasa txikiagoa. Dena den, jaiotzak ugaritzen ari dira Euskal Herrian azken urteetan<sup>1</sup>, eta ziurrenik horrek ere eraginik izango du Baiona-Donostia euro-hirian.

- **Gaztetxoenen eskolatzte tasa handia:** Adin tarte gazteenetan (15-19) Baiona-Donostiako eskolatzte tasa (%77,0) Euskal Herriko batz bestekotik (%69,7) gora dago. Batez ere, Lapurdiko udalerrietako tasa altuen eraginez. Adin tarte horretarako Gipuzkoako tasa orokorra %69,0koa da, aldiz, Lapurdikoa %91,3.

- **Gaztetxoek geroz eta gehiago ikasten dute D ereduan:** Ez dugu euro-hiriko daturik, baina, Gipuzkoan, 1990-1991 ikasturtetik 2004/2005 ikasturtera, haur eta lehen hezkuntzako (11/12 urte arte) ikasleen artean D ereduan ikasten dutenak erdia baino gutxiago izatetik ia  $\frac{3}{4}$  izatera igaro dira. Eta, Ipar Euskal Herrian, %3,5 izatetik %6,1 izatera.

- **Ikasketa maila altuko biztanleria duen ingurunea:** Baiona Donostia euro-hiriko udalerrietan, batez beste, bigarren mailako ikasketak II dituztenak (%28,2) eta hirugarren mailako ikasketak dituztenak (%16,1) gehiago dira Euskal Herrian (%23,3 eta %15,0) batez beste direna baino. Gipuzkoako batz bestekoa Euskal Herrikoaren parekoa denez eta Lapurdikoa handiagoa, esan dezakegu ere, udalerrietako daturik ez dugun arren, Lapurdiko udalerrietako batz bestekoak handitu duela Baiona-Donostia euro-hiriko batz bestekoa.

## Zentsuek erakusten diguten lan merkatuari dagokionez (2001 urtea)...

Orokorrean, Baiona-Donostia euro-hiria, lan merkatuaren gaian, Euskal Herriko batz besteko balioetatik gertu topatu dugu, berezitasun batzuekin, batez ere Lapurdiko udalerrien balioek eragindako berezitasunak. Ikus dezagun zehatzago:

### Jarduera, enplegu eta langabezia tasak

- **Jarduera tasetan antzeko balioak:** zentsuko datuen arabera, euro-hiriko batz besteko jarduera tasa (%70,0) Euskal Herriko tasaren (%68,6) eta Europako Batasuneko tasaren (%67,8) antzekoa da.

---

<sup>1</sup> Aztiker, "Euskal Herria datuen talaiatik, 2006" Ed. Txalaparta, 2006: 4. atala 'Jaiotzak eta Heriotzak'.

- **Emakumezkoen jarduera tasa gizonetzkoena baino nabarmen txikiagoa:** aztertutako eremu guztietan eta adin tarte guztietan emakumezkoen jarduera tasa dezente txikiagoa da gizonetzkoena baino. Dena den, aldea txikiagoa da Lapurdin Gipuzkoan baino. Europako Batasunean soilik 5 estatutan da aldea Euskal Herrikoa baino handiagoa, gehienak Mediterraneo aldekoak: Malta, Grezia, Espainiako Estatuak, Italia eta Irlanda.

- **Euro-hiriko gazteenen jarduera tasa apur bat txikiagoa:** gazteen jarduera tasa antzekoa da euro-hirian (%59,3) eta Euskal Herrian (%61,2). Halere, gazteenen (16-29) jarduera tasa apur bat txikiagoa da Baiona-Donostia euro-hirian Lapurdiko tasa dezente txikiagoa delako (%52,0). Europako Batasuneko gazteenen jarduera tasa ere (%59,0) euro-hiriko jarduera tasaren antzekoa da; biztanle gazteenen artean (16-29) Batasuneko 11 estatutan jarduera tasak handiagoak dira Baiona-Donostia euro-hirian baino.

- **Enplegu tasetan ere antzeko balioak:** Baiona-Donostia euro-hiriaren batz besteko enplegu tasa %61,6koa da. Portzentaje hori Euskal Herriko portzentajearen (%60,8) oso antzekoa da. Gipuzkoako enplegu tasa, berriz, apur bat handiagoa da (%63,1) eta apur bat txikiagoa Lapurdiko (%59,2). Antzekoa da ere, Europako Batasuneko batz besteko enplegu tasa (%60,3).

- **Emakumezkoen enplegu tasa txikiagoa, aldea handiagoa Euskal Herrian eta antzekoa Batasunean:** enplegu tasa ere nabarmen txikiagoa da emakumezkoen artean gizonetzkoen artean baino, eremu guztietan. Aldeak antzekoak dira euro-hirian eta Europako Batasunean; Euskal Herrian, berriz, aldeak nabarmenagoak dira. Batasuneko 6 estatutan soilik da gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko aldea Baiona-Donostia euro-hirian baino handiagoa: Maltan, Grezian, Espainiako Estatuan, Italian, Luxenburgon eta Zipren.

- **Gazteenen enplegu tasa %50etik behera:** Adin tarte gazteenetan enplegu tasa ozta-ozta iristen da biztanleen erdira. Lapurdin, gazteenen artean enplegu tasa dezente txikiagoa da gainontzeko eremuetan baino. Herrialde horretan ez aktiboak dezente gehiago direlako, batez ere. Gogoratu herrialde horretan 15-19 urte bitarteko biztanleen eskolatzeko tasa %90etik gorakoa zela. Gazteenen enplegu tasa txiki horrek, euro-hiriko enplegu tasa ere txikitzen du. Batasuneko batz besteko balioak ere antzekoak dira. Halere, biztanle gazteenen artean (16-29) Batasuneko 12 estatutan enplegu tasak handiagoak dira gurean baino.

- **Antzeko langabezi tasak:** langabezia tasak %11 inguruak ziren 2001 urte inguruan, bai gurean eta baita Europako Batasunean ere. Dena den, eranskinen erantsi ditugun datuen arabera, tasa horrek nabarmen egin du behera azken urteetan. 2005 urtean langabezia tasa %7,3 zen EAEn, %5,6 Nafarroa Garaian eta %9,2 Pirinio Atlantikoetan; Europako Batasunean ere %8,9ra jaitsi da 2005 urterako; beraz, datu zehatzik ez badugu ere, badirudi Euskal Herriko langabezia tasa Batasuneko baino txikiagoa dela egun.

- **Emakumezkoen langabezia tasa askoz handiagoa:** Kasu guztietan langabezia tasa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, eta ezberdintasunak antzekoak dira, batez beste, Euskal Herrian eta Baiona-Donostia euro-hirian. Eta baita, Gipuzkoan eta Lapurdin ere. Aldiz, Europako Batasunean emakumezkoen langabezia tasa handiagoa bada ere, aldea askoz txikiagoa da. Gainera, emakumezkoen langabezia tasa gizonezkoena baino handiagoa izatea ez da Europako Batasunean orokortua dagoen fenomeno bat; orokorren bi sexuen arteko aldea txikia da langabezia tasari dagokionez. Eta 9 estatuetan gizonezkoen langabezia tasa handiagoa da emakumezkoena baino, eta beste 9 estatuetan aldea ez da %1era iristen. Aldeak, euro-hirian bezain handiak soilik Espainiako Estatuan eta Italian dira.

- **Gazteenen langabezia tasa handiagoa:** Orokorrean gertatzen den bezala, biztanleria zenbat eta gazteago, langabezia tasa orduan eta handiagoa da. Euro-hiriak Euskal Herriko antzeko baloreak ditu adinkako langabezia tasetan, baina Lapurdin bereziki nabarmena da adin tarte gazteenetan (16-29) ematen den langabezia tasa handia, %23,2; Euskal Herrikoa baino ia 6 puntu handiagoa, eta Gipuzkoakoa baino ia 9 puntu handiagoa. Biztanleria helduagoaren artean, diferentzia hori dezente murrizten da. Daturik ez dugun arren, pentsa dezakegu egun porzentaje horiek txikiagoak izango direla, baina aldeak mantendu egingo direla. Europako Batasunean adin tarte guztietan da langabezia Euskal Herrian baino apur bat txikiagoa. Gazteenen langabezia tasa Batasunean ere handiagoa bada ere.

- **Ipar Euskal Herriko gazteenen langabezia tasa altuak:** azpimarratu nahi dugu, bestalde, egungo Ipar Euskal Herriko datu zehatzik ez ditugun arren, ditugun datuek, bai zentsuetatik jasotakoek eta baita Pirinio Atlantikoari buruz jasotakoek ere, Ipar Euskal Herriko gazteenen langabezia tasak oso handiak direla adierazten digutela. Alde batetik, ikusi dugu zentsuko datuen arabera 15-29 urte bitartean Lapurdiko gazte aktiboen %23,2 langabezian zegoela 2001. urtean, eta bestalde, Pirinio Atlantikoetako datuen arabera, 25-34 urte bitarteko gazte aktiboen langabezia tasa %23,4koa da. Hego Euskal Herrian, berriz, 2005eko datuen arabera, 16-24 urte bitarteko gazte aktiboen langabezia tasak dezente handiak badira ere, 25-34 urte bitarterako beherazko joera hartua dute; eta inondik ere ez dira iristen Lapurdiko tasetara.

- **Langabezia tasei buruzko oharra:** esan dugun bezala, langabezia tasen azken datuak aztertuta azken urteetan Euskal Herriko langabezia tasak behera egin dutela ondorioztatzen da; Europako Batasuneko tasetatik behera. Eranskinean aurkezten ditugun datuetan ikusten da beherakada emakumeetan eta gizonezkoetan ere eman dela eta adin tarte guztietan. Dena den, aipatu ditugun berezitasunak mantentzen dira; alegia, gazteenen tasa handiagoak eta emakumezkoen tasa dezente handiagoak.



## Biztanleria okupatua; lan baldintzak

- **Behin-behinekotasun tasa handiagoak:** Baiona-Donostia euro-hirian biztanleria okupatuaren bostena langile ez finkoa da. Portzentaje hau Lapurdin %13,1era jaisten da, Europako Batasuneko bataz bestekora gerturatzeko delarik; bertan, ez finkoen portzentajea %12,4 da, Euskal Herrikoa (%22,0) eta Baiona-Donostia euro-hiriko baina dezente txikiagoa. Europako Batasunean, Euskal Herriko bataz bestekoaren gainetik soilik Espainiako Estatuak (%32,2) dugu; eta, euro-hiriko portzentajearen gainetik Espainiako Estatuak eta Portugal, besterik ez.

- **Okupatuaren egoera profesionalaren arabera antzeko banaketa:** egoera profesionalaren arabera antzeko banaketa ematen da eremu guztietan, Euskal Herrian zein Europako Batasunean; salbuespen batzuekin, Baiona-Donostia euro-hirian proportzioan gehiago dira administrazio lanetan eta zerbitzuetan ari direnak, Euskal Herriko bataz bestekoa baina (%28,5 euro-hirian eta %24 Euskal Herrian). Lapurdin aldea handiagoa da; Lapurdiko langileen herenak du alor horretan lanpostua. Eta, gutxiago dira, esku-langile kualifikatu eta ez kualifikatuak; Euskal Herrian biztanleria okupatuaren %40,1 dira, eta aldiz, Baiona-Donostian %33,2. Gutxiago Lapurdiko aldean (Euro-hiriko Lapurdiko udalerrietako bataz bestekoa %22,2), eta gehiago Gipuzkoako aldean (%37,4 da Gipuzkoako euro-hiriko udalerrietako bataz bestekoa).

- **Euro-hirian zerbitzuen sektoreak leku berezia:** Baiona-Donostia euro-hiriaren lan merkatuan oso garrantzitsua da zerbitzuen sektorea; hamar okupatuetatik 7 sektore honetan ari da lanean. Zerbitzuen gailentasun hori nabarmenagoa da oraindik ere Lapurdin, bertan hamarretik ia 8 ari da sektore honetan. Azpimarratu behar dugu, Baiona-Donostia euro-hirian zerbitzuetan enplegatutakoak proportzioan Batasunean baino gehiago direla (%70,6 euro-hirian eta %64,0 Batasunean), eta gutxiago gainerako bi sektoreetan.

- **Okupatuaren erdiek bizi diren udalerrian egiten dute lan:** la biztanleen erdiek bizi diren udalerrian bertan lan egiten dute; erdia baino apur bat gehixeago Gipuzkoan, eta hamarretik lau Lapurdin. Beste departamentu edo komunitate autonomo batetan, berriz, euro-hiriko biztanleen %4,4ak lan egiten du. Portzentaje hau %2,2ra jaisten da Gipuzkoan eta %8,3ra igotzen da Lapurdin.

- **Gehienak auto partikularra erabiltzen dute lanera joateko:** Baiona-Donostia euro-hiriko biztanle okupatuaren erdiak baino gehiagok (%55,1) auto partikularra erabiltzen dute lanera joateko; soilik %14,8 joaten dira lantokira oinez, eta %12,2ak garraio bide publikoak erabiltzen dute. Gipuzkoan gehiago dira oinez (%20,8) joaten direnak lanera, Lapurdin baino (%5,8). Aldiz, Lapurdin hamar okupatuetatik ia 8k erabiltzen du auto partikularra lanera joateko, eta Gipuzkoan hamarretik 5ek. Garraio publikoak, berriz, Lapurdiko langileen %2,8k baino ez du erabiltzen, eta Gipuzkoan ere soilik %11,9k.



## 5. Eranskina: langabezia inkestak beste eremu batzuetan

### 5.1.- Jarduera eta langabezia tasak LAN MERKATUA (enplegu inkestak)

42.- Jarduera tasa %tan sexuaren eta adinaren arabera  
EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (16-64 urte)

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>Guztira %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	56,9	59,6	68,9
16-24	44,5	48,3	40,4
25-34	88,4	89,9	91,3
35-54	82,1	82,9	85,3
55+	18,0	20,7	31,5
<b>Emakumezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	47,0	49,6	67,4
16-24	41,7	45,1	35,7
25-34	81,9	83,5	85,4
35-54	69,5	69,6	79,4
55+	11,0	13,8	43,1

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>Gizonezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>67,4</b>	<b>69,8</b>	<b>70,4</b>
16-24	47,4	51,7	43,8
25-34	94,5	96,0	100,0
35-54	94,8	95,6	91,1
55+	26,7	28,6	21,6

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi).

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsotz honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak.

### 43.- Langabezia tasa %tan sexuaren eta adinaren arabera EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005 (16-64 urte)

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>Guztira %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>7,3</b>	<b>5,6</b>	<b>9,2</b>
16-24	19,2	14,9	11,9
25-34	9,4	6,8	23,4
35-54	5,0	3,5	6,4
55+	3,3	4,2	0,0
<b>Emakumezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,6</b>	<b>7,6</b>	<b>12,9</b>
16-24	19,4	14,4	7,8
25-34	11,6	9,3	34,1
35-54	7,3	5,3	9,4
55+	5,8	5,8	0,0
<b>Gizonezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>5,7</b>	<b>4,3</b>	<b>6,0</b>
16-24	18,6	15,1	14,4
25-34	7,6	4,6	10,1
35-54	3,4	2,2	3,9
55+	2,2	3,8	0,0

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsotz honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

## 5.2.- Langabeak

### LAN MERKATUA (enplegu inkestak)

#### 44.- Langabeak, lan bila daramaten denboraren arabera

##### EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005

	EAE		Nafarroa Garaia		Pirinio Atlantikoak	
	Kop. (000)	%	Kop. (000)	%	Kop. (000)	%
<b>GUZTIRA</b>	<b>75,8</b>	<b>100,0</b>	<b>16,4</b>	<b>100,0</b>	<b>27,4</b>	<b>100,0</b>
Hilabete baino gutxiago	17,1	22,6	6,2	37,8	2,0	7,4
1 - 3 hilabete	13,1	17,3	3,3	20,1	1,5	5,6
3 - 6 hilabete	10,5	13,9	1,6	9,8	10,0	36,6
6 hilabete - urte 1	11,6	15,3	1,7	10,4	2,4	8,7
1 - 2 urte	10,7	14,1	2	12,2	5,5	20,0
2 urte edo +	12,7	16,8	1,8	11,0	5,9	21,7

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi).

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsio honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak.

#### 45.- Langabeak, lan bila daramaten denboraren, sexuaren eta adinaren arabera %tan

##### PIRINIO ATLANTIKOAK 2005

	Guztira	15-24	25-34	35+
<b>Guztira %</b>				
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hilabete baino gutxiago	7,4	0,0	0,0	16,2
1 - 3 hilabete	5,6	27,0	0,0	0,0
3 - 6 hilabete	36,6	28,1	22,4	51,0
6 hilabete - urte 1	8,7	18,0	14,7	0,0
1 - 2 urte	20,0	0,0	44,0	11,5
2 urte edo +	21,7	26,9	18,9	21,3
<b>Emakumezkoak %</b>				
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hilabete baino gutxiago	11,2	0,0	0,0	24,1
1 - 3 hilabete	8,5	60,0	0,0	0,0
3 - 6 hilabete	27,4	0,0	0,0	58,8
6 hilabete - urte 1	13,1	40,0	18,9	0,0
1 - 2 urte	30,2	0,0	56,7	17,1
2 urte edo +	9,6	0,0	24,3	0,0

	Guztira	15-24	25-34	35+
<b>Gizonezkoak %</b>				
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Hilabete baino gutxiago	0,0	0,0	0,0	0,0
1 - 3 hilabete	0,0	0,0	0,0	0,0
3 - 6 hilabete	54,7	51,1	100,0	34,8
6 hilabete - urte 1	0,0	0,0	0,0	0,0
1 - 2 urte	0,0	0,0	0,0	0,0
2 urte edo +	45,3	48,9	0,0	65,2

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertso honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

#### 46.- Langabezia tasa, lan bila daramaten denboraren arabera EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>GUZTIRA %</b>	<b>7,3</b>	<b>5,6</b>	<b>9,2</b>
Hilabete baino gutxiago	1,7	2,1	0,7
1 - 3 hilabete	1,3	1,1	0,5
3 - 6 hilabete	1,0	0,6	3,4
6 hilabete - urte 1	1,1	0,6	0,8
1 - 2 urte	1,0	0,7	1,8
2 urte edo +	1,2	0,6	2,0

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertso honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

#### 47.- Langabeak, lortutako ikasketa mailaren eta sexuaren arabera %tan EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>Guztira %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Maila	14,8	15,2	21,2
2. Maila	47,5	50,0	65,4
3. Maila	37,9	35,4	13,4
<b>Emakumezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Maila	14,0	13,0	9,6
2. Maila	44,7	47,8	90,4
3. Maila	41,6	40,2	0,0
<b>Gizonezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Maila	15,7	18,1	44,0
2. Maila	51,0	52,8	16,6
3. Maila	33,2	29,2	39,4

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsio honi dagokio; Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

#### 48.- Langabeak, lortutako ikasketa mailaren eta adinaren arabera %tan PIRINIO ATLANTIKOAK 2005

	Total	15-24	25-34	35+
<b>GUZTIRA %</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Titulazio gabe edo CEP (Lehen mailako ikasketen ziurtagiria)	21,2	0,0	18,9	32,7
Kolegioa	8,7	18,0	14,7	0,0
CAP (Gaikuntza profesionalaren ziurtagiria), BEP (ikasketa profesionalen diploma) edo baliokidea	22,1	53,9	16,6	11,5
Batxilergoa edo titulazio profesionala edo baliokidea	18,4	0,0	27,4	20,2
Batxilergoa + 2 urte	16,3	0,0	0,0	35,6
Goi mailako titulazioa	13,4	28,1	22,4	0,0

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsio honi dagokio; Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

### 5.3.- Okupatuak

#### LAN MERKATUA (enplegu inkestak)

#### 49.- Okupatuak, lortutako ikasketa mailaren eta sexuaren arabera %tan EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>Guztira %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Maila	10,6	14,4	15,4
2. Maila	41,6	44,9	77,4
3. Maila	47,8	40,7	7,2
<b>Emakumezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Maila	9,2	12,1	20,4
2. Maila	38,6	41,9	69,8
3. Maila	52,3	45,9	9,8
<b>Gizonezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Maila	11,6	16,0	11,2
2. Maila	43,7	46,8	83,7
3. Maila	44,7	37,1	5,1

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharra:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsoko honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

#### 50.- Okupatuak, lortutako ikasketa mailaren eta adinaren arabera %tan PIRINIO ATLANTIKOAK 2005

	Total	15-24	25-34	35+
<b>GUZTIRA %</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Titulazio gabe edo CEP (Lehen mailako ikasketen ziurtagiria)	15,4	13,6	10,0	16,6
Kolegioa	15,0	15,4	0,0	17,6
CAP (Gaikuntza profesionalaren ziurtagiria), BEP (ikasketa profesionalen diploma) edo baliokidea	31,5	22,9	37,8	31,6
Batxilergoa edo titulazio profesionala edo baliokidea	20,0	41,6	17,0	17,3
Batxilergoa + 2 urte	10,9	6,6	22,1	9,6
Goi mailako titulazioa	7,2	0,0	13,1	7,2

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi).

**Oharra:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsoko honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak.



### 51.- Okupatuak, egoera profesionalaren eta sexuaren arabera %tan EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005

	EAE	Nafarroa Garaia	Pirinio Atlantikoak
<b>Guztira %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	100,0	100,0	100,0
Bere kontura	18,6	20,7	9,9
Asalariatua	81,4	79,3	90,1
<b>Emakumezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	100,0	100,0	100,0
Bere kontura	15,7	15,7	6,5
Asalariatua	84,3	84,3	93,5
<b>Gizonezkoak %</b>			
<b>GUZTIRA</b>	100,0	100,0	100,0
Bere kontura	20,8	24,2	12,7
Asalariatua	79,2	75,8	87,3

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsoko honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

### 52.- Okupatuak, egoera profesionalaren eta adinaren arabera %tan PIRINIO ATLANTIKOAK 2005

	Total	15-24	25-34	35+
<b>GUZTIRA %</b>	100,0	100,0	100,0	100,0
Bere kontura	9,9	0,0	2,7	12,7
Asalariatua	90,1	100,0	97,3	87,3

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsoko honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

**53.- Okupatuak, lanpostuaren arabera %tan  
EAE, Nafarroa Garaia eta Pirinio Atlantikoak, 2005**

	Nafarroa Garaia	EAE	Pirinio Atlantikoak
<b>GUZTIRA %</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Enpresetako eta herri-administrazioetako zuzendaritza	8,7	6,9	6,0
2. Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektuak	13,7	15,2	8,7
3. Laguntzako teknikariak eta profesionalak	12,2	16,1	17,0
4. Administrariak	6,6	7,0	17,6
5. Jatetxeetako, gizebanakoentzako zerbitzuetako eta babes-zerbitzuetako langileak; dendetako saltzaileak	13,5	13,9	15,8
6. Nekazaritzako eta arrantzako langile gaituak	3,6	1,1	2,1
7. Eskulangileak eta manufaktura-industrietako, eraikuntzako eta meagintzako langile gaituak; instalazio eta makinetao eragileak izan ezik	17,3	15,1	11,4
8. Instalazioetako eta makinetao eragileak; muntatzaileak	12,2	12,9	7,7
9. Langile ez-gaituak	12,1	11,8	13,8

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsoko honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

## 54.- Okupatuak, lanpostuaren eta adinaren arabera %tan

## PIRINIO ATLANTIKOAK 2005

	GUZTIRA	15-24	25-49	50 +
<b>GUZTIRA %</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
1. Enpresetako eta herri-administrazioetako zuzendaritza	6,0	0,0	7,1	5,6
2. Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak	8,7	0,0	6,5	18,7
3. Laguntzako teknikariak eta profesionalak	17,0	13,7	20,1	9,3
4. Administrariak	17,6	0,0	15,8	30,2
5. Jatetxeetako, gizabanakoentzako zerbitzuetako eta babeszerbitzuetako langileak; dendetako saltzaileak	15,8	32,3	14,9	11,5
6. Nekazaritzako eta arrantzako langile gaituak	2,1	0,0	1,9	3,3
7. Eskulangileak eta manufaktura-industrietako, eraikuntzako eta meagintzako langile gaituak; instalazio eta makinetao eragileak izan ezik	11,4	28,2	11,2	4,7
8. Instalazioetako eta makinetako eragileak; muntatzaileak	7,7	9,3	8,4	5,0
9. Langile ez-gaituak	13,8	16,5	14,1	11,7

Iturria: Enplegu inkestak (INE-EPA; INSEE-L'enquête Emploi)

**Oharrak:** Pirinio Atlantikoetako datua unibertsoko honi dagokio: Akitaniako departamenduan bizi diren biztanleak eta duela urte bate Pirinio Atlantikoetan bizi zirenak

Baiona-Donostia euro-hiriko lan merkatuaren azterketa.  
1.- Euro-hiriak biltzen dituen udalerrien argazkia



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria  
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Martin Ugalde Kultur Parkea · 20140 Andoain · [www.gaiendegia.org](http://www.gaiendegia.org) · Tel. +34 943 304 365

*Diruz lagunduta:*

R E G I O N



AQUITAINE



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA  
PRESIDENCIA